

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI  
ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

, .....(e)ko           aren           (a)

**Honako hauek BILDU DIRA:**

**Alde batetik, MUTUALIA, GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUEN 2 zenbakiko MUTUA** (hemendik aurrera «**MUTUALIA**», «**Mutua**», «**Tratamenduaren erantzulea**» edo «**Fitxategiaren erantzulea**») egoitza operatiboa eta helbidea honako hau dituen jakinarazpenetarako: Henao kalea 26, 48009 Bilbo; IFZ zenbakia G 95471165 duena; eta haren izenean eta ordezkari IGNACIO LEKUNBERRI HORMAETXEA jauna, adinez nagusia, NAN zenbakia 30.565.289-Z duena eta honi dagokionez helbide bera izanik, **MUTUALIAko zuzendari kudeatzailea** den aldetik, eta bereziki gaituta dagoela haren alde emandako ahalorde-eskriturako merezimenduetan.

**Bestetik**           , (hemendik aurrera, «**Hornitzailea**», «**Enpresa**», «**Enpresa hornitzailea**» «**Esleipenduna**» edo «**Tratamenduaren arduraduna**»), helbidea           duela, IFK zenbakia           duena eta haren ordezkari           jauna/andrea izanik, adinez nagusia,           den aldetik eta NAN/Pasaporte/AIZ zenbakia           duena.

**Honako hau ADIERAZI DUTE:**

- a) Bi aldeek kontratu-harreman bat dutela sinatuta eta indarrean           **egunean sinatutako kontratuaren arabera**; horren arabera, datu pertsonalak eta/edo informazio konfidentziala zuzenean edo zeharka tratatzea beharrezkotzat jo daiteke.
- b) Bi aldeak jakitun direla datu pertsonalak babesteari buruzko araudian aurreikusitako nahitaez betetzeko arauen eta konfidentzialtasunaren eskakizunak bete behar dituztela, batik bat, **DATUAK BABESTEARI BURUZKO 2016/679 (EB) ERREGELAMENDU OROKORRA, 2016ko apirilaren 27koa, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**, pertsona fisikoen datu pertsonalak babesteari buruzkoa tratamenduari dagokionez eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez, **baita aplikatu beharrekoak, osagarriak, garapenekoak edo lotutakoak diren gainerako arauak ere**.
- c) Kontratu honen bitartez, MUTUALIAk, tratamenduaren erantzule den aldetik, baimena ematen diola hornitzaileari (dokumentu honen goiburuan identifikatutako enpresari edo profesionalari), tratamenduaren arduradun den aldetik, MUTUALIAren kargura betiere, kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak, hala badagokie, tratatzeko, baldin eta fitxategiaren erantzuleak tratamenduaren arduradunari komunikatzen badizkio bi aldeek artean dagoen kontratu-lotura gauzatzea eta ahalbidetzea izanik xede bakarra; horregatik guztiagatik, honako hau ituntzera etorri dira: **KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI ETA DATU PERTSONALAK TRATATZEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**, lehen aipatutako araudia betetze aldera eta betiere honako hauek betez:

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI  
ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

**KLAUSULAK**

1. Enpresa esleipenduna, legez tratamenduaren arduradun den aldetik, gaituta geratzen da datu pertsonalen tratamenduak egiteko, fitxategiaren arduradun den MUTUALIAREN kontura, betiere kontratua sinatu duten bi aldeen arteko kontratu-lotura gauzatzeko beharrezkoak badira tratamendu horiek; horietaz gain, datuak babesteko eta konfidentziasuneko klausula hauetatik ondorioztatzen dena ere egin beharko du, betiere **lotura juridiko horretan tratamenduaren arduradunak MUTUALIAREN erantzukizunpeko datu pertsonalak eskuratzea beharrezkoa izan daitekeen kasuan.**
2. Horrenbestez, bi aldeen arteko lotura juridikoa betetzeko, **trtamenduaren arduraduna gaitzen da soilik behar-beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamenduak egiteko.** Beharrezkoak diren ekintza horien barruan sar daiteke honako hauetako edozein: datu pertsonalak eskuratzea, bistaratzea, biltzea, erregistratzea, egituratzea, aldatzea, kontserbatzea, erazte, kontsultatzea, transmisio bidez komunikatzea, hedatzea, elkarkonektatzea, alderatzea, mugatzea, ezabatzea, suntsitzea, kontserbatzea eta komunikatzea.
3. Tratamenduaren arduradunak ez du egingo bi aldeak lotzen dituen kontratu-harremana gauzatzeko ezinbestekoa ez den tratamendurik, ezta klausula hauen xede dena ere, **xedea beste edozein baldin bada;** tratamenduaren erantzuleak emandako jarraibideak bete beharko ditu beti.
4. Jardueraren bat egitean **trtamenduaren arduradunak datu pertsonalak eskuratu edo/eta tratatu behar baditu MUTUALIAREN eraikin edo instalazioetan,** MUTUALIAko erantzuleek jakinarazitako segurtasun-arloko betebeharrak eta jarraibideak bete beharko ditu arduradunak.
5. Jardueraren bat egitean **trtamenduaren arduradunak datu pertsonalak eskuratu edo/eta tratatu behar baditu bere instalazioetan,** datuak babestearen arloan indarrean dauden arauetan xedatutakoa bete beharko du arduradunak, baita klausula hauetan jasotakoa ere, eta tratatutako datu pertsonalen segurtasuna, konfidentziasuna eta osotasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu; fede onez eta uneoro eskatu beharreko zuzentasunez jokatu beharko du betiere.
6. Tratamenduaren arduradunak MUTUALIAREN erantzukizunpeko datu pertsonalak dituzten fitxategiak **urrunetik eskuratu** behar baditu eta eskuratu baditu, tratamenduaren arduradun behartuta dago ematen duen zerbitzuagatik eskuratzen edo tratatzen dituen datu pertsonalak ez erabiltzera, tratatzera edo lagatzera arlo horretan indarrean dagoen legeria urratuz, ezta ematen duen zerbitzu hori garatu eta betetzeko beharrezkoak ez diren beste xedeetarako ere; izan ere, tratamenduaren erantzulearen jarraibideei zorrotz jarraitu behar die.

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

Tratamenduaren erantzulearen informazio-sistema eta ekipoetan urrundik sartzen den kasuetan, tratamenduaren arduradunak beharrezkoak diren segurtasun-neurriak ezarriko ditu eskuratzen dituen datu pertsonalen eta informazioaren osotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko; era berean, tratamenduaren erantzulearen datu pertsonalak bere informazio-sistemetan ez dituela sartuko bermatu beharko du, baldin eta bi aldeek duten kontratu-lotura betetzeko ez bada. Horretaz gain, **berariaz, urruneko sarbideei dagokienez, tratamenduaren arduradunak honako konpromiso hauek hartu ditu:**

- 6.1. Kontratuaren indarraldi osoan, sarbidea izateko tratamenduaren erantzuleak ematen dion informazioa gordetzeko konpromisoa eta, kontratua iraungi ondoren, informazioa hori suntsitzekoa.
- 6.2. Tratamenduaren arduradunak, urruneko sarbide horietan, honako konpromiso hau hartzen du: ez dituela gaituko, ezta erabiliko ere, sartzeko gakoak automatikoki gordetzeko edo gogoratzeko aukera ematen duten funtzioak aplikazioetan edo sistema eragileetan.
- 6.3. Tratamendu arduradunaren azpiegiturei dagokienez, MUTUALIaren informazio-sistemetan sartzeko erabiltzen direnak logikoki eta fisikoki behar bezala isolatuta izateko konpromisoa. Sare, azpisare edo komunikazio-zerbitzu bakoitzean suebakiak (firewall) ezarriko dira; suebakiak pribilegiarik txikienaren politikarekin konfiguratuta egon beharko dute, eta zerbitzua emateko beharrezkoa ez den edo baimenduta ez dagoen trafiko mota blokeatu edo ukatu egin beharko du. Era berean, MUTUALIAko erantzuleek baimendutako ataka, protokolo edo zerbitzuak baino ezin izango dira erabili. Baimendutakotzat zehaztuta ez dagoen edozein ataka, protokolo edo zerbitzu ukatzea izango da lehenetsitako aukera.
- 6.4. Tratamenduaren arduradunak konpromisoa hartzen du kontratuaren indarraldiko edozein unetan MUTUALIAk baimendutako langileek ikuskapen bat egin ahal izan dezaten, ezarritako segurtasuna egiaztatzearen; horretarako, arauetan ematen diren babes-gomendioak eta segurtasun-neurriak betetzen direla egiaztatuko da, kasuan kasu aplikatu beharreko baldintzen arabera. Konpromiso horrek ez du esan nahi, inolaz ere, tratamenduaren arduraduna salbuetsita dagoenik kontratu honetan bildutako kontratu-betebeharrak betetzetik, ezta zuzentasunez jokatzetik ere, tratatutako informazioaren osotasuna, segurtasuna eta konfidentzialtasuna arriskuan jartzen duen egoera oro saihestearren. Datu pertsonalak arriskuan jartzen dituen edozein egoeraren aurrean, tratamenduaren arduradunak fitxategiaren erantzulea jakinaren gainean jarriko du berehala.
- 6.5. Era berean, lantaldearen jardura monitorizatzeko aukera izango du MUTUALIAk.
- 6.6. Kontratua gauzatzearen esparruan, eta kontratuaren xede diren informazio-sistemei dagokienez, honako jardura hauek **debekatuta** daude, esanbidez:
  - 6.6.1. Informazio-sistemak legez kontrako jarduerak edo baimendu gabeko jarduerak egiteko erabiltzea, hala nola datuak, baliabideak edo lanak

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

egiteagatik eskura dituen bestelako edukiak komunikatzea, banatzea edo lagatzea eta, bereziki, lege- edo arau-xedapenen bidez babestuta daudenak.

6.6.2. Softwarea baimenik gabe instalatzea, konfigurazioak aldatzea edo sareetara konektatzea.

6.6.3. Informazio-sistema edo instalatutako softwarea baimenik gabe aldatzea, edo sistema beste xede baterako erabiltzea.

6.6.4. Segurtasun-mekanismoak eta sareak gainkargatzea, probatzea edo desaktibatzea, baita sareak edo teklatuak monitorizatzea ere.

6.6.5. Informazio-sistemak edo sistemaren komunikazio-sareak beste nonbait kokatzea fisikoki eta haien konfigurazioa aldatzea.

6.6.6. Kontratuaren garapenarekin loturarik ez duten gailu edo sistemak instalatzea alde aurretik baimena lortu gabe, hala nola USB gailuak, kanpoko euskarriak, ordenagailu eramangarriak, hari gabeko sarbide-puntuak edo PDAk.

6.6.7. Edozein informazio izatea, banatzea, lagatzea, aditzera ematea edo aldatzea informazio horren jabeak esanbidez baimenik eman gabe.

6.6.8. Kontuak eta identifikatzaile pertsonalak (pasahitzak eta PINak barne hartuta) partekatzea, edo tokiko edo urruneko sarbidea ahalbidetzen duten mekanismoak erabiltzen uztea baimenik ez duten erabiltzaileei.

6.6.9. Segurtasuneko edo babeseko elementuren bat edo sortzen duten informazioa indargabetzea edo ezabatzea.

6.6.10. Tratamenduaren eraginpeko datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna eta/edo konfidentziasuna arriskuan jar dezakeen ekintza oro.

7. Aurreko kasu guztietan, bereziki **enpresa hornitzaileak langilerik baldin badu MUTUALIaren eraikin edo instalazioetan zerbitzuak ematen, edo MUTUALIaren informazio-sistemetan bertatik bertarako edo urruneko sarbidea dutenak**, tratamenduaren erantzuleak zera eska diezaioke tratamenduaren arduradunari, MUTUALIaren eraikin edo instalazioetan lan egiten duten langileek **konfidentziasun-konpromisoaren dokumentua** sina dezatela, baita Datuak Babesteko araudia eta jarraibideak betetzeko konpromisoarena ere.

Enpresa hornitzaileak eta/edo haren langileek dokumentu hori ez badute sinatzen, edo halako dokumenturik izan ezean, MUTUALIAk bere eraikin edo instalazioetan sartzea edo bere informazio-sistemak eskuratzea eragotzi edo ukatu ahal izango die tratamenduaren arduradunaren langileei.

**Tratamenduaren arduradunaren langileez osatutako lantaldeei** informazioa eta kontzientziazioa eman ahal izango diete MUTUALIAko langileek erakundearen segurtasunarekin lotutako alderdiei dagokienez, eta pertsona bakoitzari segurtasun-arloan prestakuntza jaso izanaren adierazpena sinatzeko eskatzen ahal zaio. MUTUALIAN bertatik bertara edo urrundik lan egiten duen taldeko burua izango da lantaldeak segurtasun-neurriak betetzearen erantzule, enpresa hornitzailearen aurrean.

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

8. Mandatu honen xedea betetzearen ondoriozko prestazioak gauzatzeko, tratamenduaren erantzulea eta tratamenduaren arduraduna lotzen dituen harreman juridikoa gauzatzeko **behar-beharrezkoak** diren datu pertsonalak soilik jarriko dizkio eskura tratamenduaren erantzuleak tratamenduaren arduradunari.
9. Tratamenduaren erantzulearen eta tratamenduaren arduradunaren arteko kontratu honek bi erakundeen arteko **kontratu-harremanaren iraupenarekin eta indarraldiarekin lotutako aldian** iraungo du.

**Kontratu-lotura edo -harremana amaitzen denean**, tratamenduaren arduradunak tratamenduaren erantzuleari itzuli behar dizkio datu pertsonalak, eta kopiaren bat baldin badu suntsitu egin beharko du, salbu eta legez kopiaren bat gordetzeko aukera baldin badu. Azken kasu horretan, arduradunak kopia bat gordetzen ahal du, datuak behar bezala blokeatuta betiere, prestazioa gauzatzeko erantzukizunak eragin ditzakeen bitartean.

10. **Klausula hauetan aipatutako gainerako betebeharez gain**, berariaz **tratamenduaren arduraduna eta haren zerbitzurako langileak**, lotzen dituen forma juridikoa edozein izanik ere, **honako hauek betetzera behartuta daude** berariaz:

**10.1.** Tratamenduaren eraginpeko datu pertsonalak edo tratamendu horren ondorioz txertatzen edo sortzen diren datu pertsonalak erabiltzea, soilik mandatu honetan aipatu den **xederako**. Ezin izango ditu datuak erabili, inolaz ere, xede propioetarako edo harreman hau eragin dutenaz besteko xedeetarako.

**10.2.** Datuak **tratamenduaren erantzulearen jarraibideen** arabera tratatzea eta hari berehala jakinaraztea jasotako jarraibideren bat okerra dela eta indarreko araudia urra dezakeela uste badu, edo tratamenduaren xede diren datuen segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna arriskuan jar dezakeela.

**10.3.** Fitxategiaren erantzulearen kontura egindako tratamendu-jarduera guztien **erregistroa** eramatea, idatziz, halakorik eska dakiokenean, dokumentu honen I. ERANSKINeko ereduari adierazitako edukiei jarraikiz.

**10.4.** Fitxategiaren erantzulearen baimena esanbidez izan ezean legez eska dakizkiokeen kasuetan, edo legez betebeharra diren kasuetan, **ez dizkie datuak komunikatuko** hirugarren pertsonari, ezta tratamenduaren beste arduradun batzuei ere. Tratamenduaren erantzuleak baimena emanez gero, arduradunak aldeztu aurretik eta idazki bidez identifikatuko du datuak zein erakunderi komunikatu behar zaizkion, hori egiteko legitimazioa, zein datu komunikatu behar dizkion eta komunikazioa egitean aplikatu beharreko segurtasun-neurriak zeintzuk diren.

**10.5.** Mandatu honen kariaz eskuratu dituen datu pertsonalei dagokienez, **sekretueginbeharra** gordetzea, baita mandatuaren xedea amaitutakoan ere.

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

- 10.6.** Zera bermatu beharko du, **datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen konpromisoa hartuko dutela**, esanbidez eta idazki bidez, konfidentziasunaren betebeharra eta dagozkien segurtasun-neurriak betetzeko; izan ere, tratamenduaren arduradunak emango die horien guztien berri. Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren erantzulearen esku izango du atal honetan xedatutako betebeharra betetzen dela egiaztatzen duen **dokumentazioa**.
- 10.7.** Datu pertsonalak tratatzeko baimendutako pertsonen datu pertsonalen babesaren arloko **prestakuntza** jasoko dutela bermatzea.
- 10.8.** Tratamenduaren erantzuleari laguntzea erantzuna ematen datuen titular interesdunei, datu pertsonalak babesteko araudiak aitortzen dizkien **eskubideak baliatzen** dituztenean. Tratamenduaren arduradunak datuen titular interesdun baten eskubideak baliatzeko eskaera bat jasotzen duenean, tratamenduaren erantzuleari jakinaraziko dio berehala eta azken horrek erantzungo dio eskubidea baliatzeko eskaera horri.
- 10.9.** Tratamenduaren arduradunak zuzenean bildu behar baditu ustez kaltetuaren datu pertsonalak, **datuak biltzeko dokumentuetan** lege-testu bat erabili eta txertatuko du, interesdunari testu horren beraren, testuaren xedearen eta dagozkion eskubideen berri emateko.
- 10.10.** Tratamenduaren arduradunak konpromisoa hartzen du **tratamenduaren erantzulea beti jakinaren gainean izango duela gorabeheraren bat gertatuz gero**, betiere tratatutako datu pertsonalen osotasunean edo konfidentziasunean eragina izan badezake.
- Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren erantzuleari jakinaraziko dizkio, bidegabeko luzamendurik gabe, nolana ere gehienez 12 orduko epean, eta egindako komunikazioa jasota geratuko den baliabidearen bitartez, jakin dituen bere ardurapeko datu pertsonalen **segurtasun-urraketak, -arrailak edo -gorabeherak**; horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia ere helarazi beharko dio. Dokumentu honen II. ERANSKINeko eredu erabil dezake komunikazioa egiteko. Informazioa berehala ematea ezinezkoa bada, ahal den heinean, informazioa arian-arian emango dio, bidegabeko luzamendurik gabe.
- 10.11.** Tratamenduaren arduradunak babesa eta behar duen laguntza emango dio tratamenduaren erantzuleari datuak babesteari dagozkion **Inpaktuaren Ebaluazioak** egiteko, hala dagokionean.
- 10.12.** Tratamenduaren arduradunak babesa emango dio tratamenduaren erantzuleari **Kontrol Agintaritzaren aurreko kontsultak** egiteko, hala dagokionean.
- 10.13.** Tratamenduaren arduradunak tratamenduaren erantzulearen esku jarriko du **betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezkoa den informazio guztia**,

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

baita tratamenduaren erantzuleak edo hark baimendutako beste auditore batek edo haren izenean egindako **auditoriak edo ikuskapenak** egiteko beharrezkoa dena ere.

**10.14.** Tratamenduaren erantzuleak Arriskuen Ebaluazioa egingo du, eta bertan jasotako **segurtasun-neurriak** ezarriko ditu tratamenduaren arduradunak, baita honako hauetarako beharrezkoak direnak ere:

10.14.1.1. Tratamendu-zerbitzu eta -sistemen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzea.

10.14.1.2. Datu pertsonalen erabilgarritasuna eta sarbidea berehala leheneratzea, gorabehera fisikorik edo teknikorik gertatuz gero.

10.14.1.3. Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoen eta antolakuntzako eraginkortasuna aldizka egiaztatzea, ebaluatzea eta balioestea.

10.14.1.4. Datu pertsonalak seudonimizatzea eta zifratzea, hala badagokio.

10.14.1.5. Birusen aurka babesteko sistema bat izatea ekipoetan, aldizka eta automatikoki eguneratzen dena, eta fitxategi, euskarri eta software guztietan erabili behar dena MUTUALIAREN informazio-sistemetan finkatu edo instalatu aurretik. Gutxienez astean behin eguneratu behar da.

10.14.1.6. Datuak Babesteko Ordezkari bat izendatzea, eta haren nortasuna eta harremanetarako datuak jakinaraztea erantzuleari, indarreko araudiaren arabera hori eska dakiokenean.

11. Tratamenduaren arduradunak, aplikatzekoa zaion Europar Batasunaren Zuzenbideko arau bati edo Estatu kide bateko barne-arau bati jarraikiz, **datuen nazioarteko transferentziak** egin behar balitu Europar Batasunetik kanpoko hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera, tratamenduaren erantzuleari alde aurretik emango dio lege-eskakizun horren berri, salbu eta araudi horretan interes publikoaren arrazoi garrantzitsuengatik debekatzen ez bada.

Tratamenduaren arduradunak ez ditu Europar Batasunetik (EB) kanpoko zerbitzarietan bilduko tratamenduaren erantzuleak eskatuta tratatzen dituen datuak, eta ez du haien gaineko nazioarteko transferentziarik egingo, betiere datu pertsonalen babesaren arloko Europako kontrol-agintariak aitortutako antzeko segurtasun-maila eskaintzen duten estatu edo lurraldeetan ez badaude.

Tratamenduaren arduradunak ez ditu fitxategiaren erantzulearen datu pertsonalak tratatuko *cloud computing* erabilia edo datuak babestearen arloan kontrol-agintariak segurutzat jotzen ez dituzten herrialdeetan kokatuta dauden zerbitzariak erabilia.

12. Tratamenduaren arduradunak ez du **frogarik** egingo datu pertsonalekin.

13. Tratamenduaren arduradunak konpromisoa hartzen du ez duela MUTUALIAREN informazio-sistemetak ezein datu mota –pertsonalak izan ala ez–, ezein dokumentazio edo ezein



**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

iturri-kode transferituko memoria-gailu ateragarrietara, tratamenduaren arduradunak esanbidez baimenik eman gabe.

14. Tratamenduaren arduradunak konpromisoa hartzen du MUTUALIAREN informazio-sistemetatik inolako informaziorik **ez ateratzeko** MUTUALIAtik edo kontratistaren beraren instalazioetatik anpoko memoria-zerbitzuen edo komunikazio-sareen bitartez –esaterako, *Cloud Computing-en* bitartez–, tratamenduaren arduradunak esanbidez baimenik eman gabe.
15. Printzipio orokor gisa, tratamenduaren arduradunak ezin izango du bi aldeak lotzen dituen kontratuaren xede den eta datu pertsonalen tratamendua dakarren ezein prestazio **azpikontratatu**, salbu arduradunaren zerbitzuen ohiko funtzionamendurako beharrezkoak diren zerbitzu osagarriak.

Tratamenduaren bat azpikontratatu behar izango balitz, tratamenduaren arduradunak horren berri eman beharko dio tratamenduaren erantzuleari, aldez aurretik eta idazki bidez, gutxienez hamabost egun naturaleko aurrerapenarekin; zein tratamendu azpikontratatu nahi dituen adierazi beharko du, eta enpresa azpikontratista argi eta garbi identifikatu beharko du, harremanetarako datu eta guzti.

Azpikontratazioa egin ahal izango da tratamenduaren erantzuleak baimena ematen duenean.

Azpikontratista ere tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta, era berean, dokumentu honetan tratamenduaren arduradunari esleitutako betebeharrak betetzera behartuta dago, baita erantzuleak ematen dituen jarraibideak ere.

Tratamenduaren arduradunari dagokio harreman edo lotura berria arautzea, azpiarduradun/azpikontratista berriak jatorrizkoaren baldintza berdinak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta betekizun formal berdinak izan dituzan, betiere datu pertsonalen tratamendu egokiari eta eraginpeko pertsonen eskubideak bermatzeari dagokienez. Azpiarduradunak ez-betetzerean bat eginez gero, jatorrizko arduraduna izango da, oraindik ere, erabateko erantzule erantzulearen aurrean, betebeharrak betetzeari dagokienez.

16. Tratamenduaren erantzuleak eskatuz gero, tratamenduaren arduradunak **ziurtagiri bat** eman beharko du, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betetzen dela bermatzeko edo araudi horretan ezartzen den alderdi zehatzen bati buruz.
17. Aldeek datuen zehaztasunari eusten **elkarri laguntzea** erabaki dute, baita datu pertsonalen tratamendua kontratuaren xederako behar-beharrezkoa denerako soilik mugatzea ere.
18. Tratamenduaren arduradunak ez ditu datu pertsonalak fitxategietan erregistratuko, ez tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan, aplikazioetan, plataformetan, ezta programetan ere, ez badituzte betetzen datuen **osotasuna eta segurtasuna** bermatzeko baldintzak, eta kontratua dela eta, zuzenean edo zeharka kudea ditzakeen datu pertsonalen



**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

**babes logiko eta fisikoa** zainduko du; halaber, datuak **baimenik gabe aldatzea, galtzea, tratatzea edo eskuratzea saihestuko du**, betiere teknologia-maila, gordetako datuen ezaugarriak eta izan ditzaketen arriskuak aintzat hartuta, giza ekintzaren edo ingurune fisiko edo naturalaren ondoriozkoak izanik ere.

19. Baldin eta, datuen izaeragatik **bereziki babestutako datuei** aplikagarri zaizkien segurtasun-neurriak ezarri behar badira, **datu pertsonalen transmisioa sare publikoen bidez edo komunikazio elektronikoetako hari gabeko sareen bidez, mezularitza bidez edo horien antzeko sistema baten bidez eginez gero**, datu horiek behar bezala **kodetuz** egingo da transmisioa, edo beste moduren bat erabili beharko da, informazioa hirugarrenek ez dutela ulertuko, ez inola ere manipulatu bermatzeko.

Xede horretarako, tratamenduaren arduradunak bere informazio-sistema telematikoetan behar diren tresnak, gailuak eta aplikazioak eduki eta ezarri beharko ditu datu pertsonalen segurtasuna, datu horiek jasotzen direla, irekitzen direla eta haien arteko elkarreragingarritasuna bermatzeko.

20. Tratamenduaren arduradunak berariaz ezarriko ditu honako hauek bermatuko dituzten **segurtasun-neurriak**:

- 20.1. Tratatu beharreko datuen funtzionaltasuna edo horiek leheneratzea
- 20.2. Pasahitzak segurtasunez kudeatzea
- 20.3. Informazioaren trazabilitatea, ahal denean eta eska daitekeenean
- 20.4. Identifikazio- eta autentifikazio-mekanismoak
- 20.5. Informazio konfidentziala arduraz zaintzea
- 20.6. Euskarri segurtatuak erabiltzea informazioaren edo datu pertsonalen garraioan
- 20.7. Datu pertsonalak tratatzen dituzten euskarriak zifratzea eta enkriptatzea
- 20.8. Datu pertsonalak dituzten memorietan sartzeko edo horiek irekitzea eragotziko duten mekanismoak
- 20.9. Informazio konfidentziala edo datu pertsonalak suntsitzea edo galtzea saihestuko duten babes-kopiak
- 20.10. Tratatu beharreko datu pertsonalen eta informazioaren segurtasuna, osotasuna eta konfidentzialtasuna etengabe egiaztatzekeko prozesuak
- 20.11. Bermatzea kontratu-lotura gauzatzeko beharrezkoak diren eta baimena duten langileek soilik dutela eskura datu pertsonalak edo informazio konfidentziala
- 20.12. Tratamenduaren erantzuleak komunikatutako segurtasun-politikak ezartzea
- 20.13. Segurtasun-neurriak ezartzen proaktibo izatea, datuak minimizatzea eta tratamenduaren erantzuleari jakinaraztea

21. **Tratamenduaren erantzulearen betebeharrak eta eskumenak:**

- 21.1. Tratamenduaren arduradunari ematea kontratu-lotura gauzatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak.

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI**  
**ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

- 21.2. Beharrezkoa denean, Inpaktuaren Ebaluazioa egitea tratamenduaren erantzuleak egin beharreko tratamendu-jardueretako datu pertsonalen babesari dagokionez.
  - 21.3. Egin beharreko alde zuzeneko kontsultak egitea.
  - 21.4. Tratatu aurretik eta bitartean, tratamenduaren arduradunak Datuak Babesteari buruzko Erregelamendu Orokorra betetzen duela zaintzea
  - 21.5. Arduradunak datuen tratamendua egiten duela gainbegiratzea, eta ikuskapenak eta auditoriak ere egitea.
  - 21.6. Tratatu beharreko datu pertsonalen segurtasunean, konfidentziasunean edo osotasunean urraketa garrantzitsuak gertatzen badira, kontratu nagusia aldi baterako etetea edo indargabetzea.
- 22. Enpresa hornitzailea tratamenduaren arduradun izateaz gain, MUTUALIArekin duen kontratu-harremanaren ondorioz tratatzen dituen datu pertsonaletako fitxategien erantzule ere baldin bada edo bihurtzen bada legez, enpresa hornitzaile horrek tratamendu horien erantzule gisa dituen legezko betebeharrak ere bete beharkoditu.**

Bi aldeek agiri hau osorik irakurri dute, eta ados daude bertan jasotako guztiarekin. Eta horrela jasota gera dadin, kontratuaren bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrerako.

, (e)ko aren (a)

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI  
ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

**I. ERANSKINA  
TRATAMENDU-JARDUEREN KATEGORIEN ERREGISTROA**

<b>Identifikazioa Tratamenduaren arduraduna</b>		
	<b>Harremanetarako datuak</b>	
<b>Identifikazioa Datuen Babeserako ordezkaria</b>		
	<b>Harremanetarako datuak</b>	
<b>Egindako tratamenduen kategoriak</b>		
<b>Nazioarteko transferentziak</b>	<b>Ez</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bai</b> <input type="checkbox"/>
		<b>Herrialdea:</b>  <b>Erakundea:</b>  <b>Bermea k erantsita: B i</b> <input type="checkbox"/>
<b>Segurtasun-neurriak</b>		
<b>Seudonimizazioa eta zifratzea</b>	<b>Ez</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bai</b> <input type="checkbox"/>
Tratamendu-zerbitzu eta -sistemen konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta erresilientzia bermatzeko frogatzeko moduko gaitasuna	<b>Ez</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bai</b> <input type="checkbox"/>
Datu pertsonalen erabilgarritasuna eta sarbidea berehala leheneratzeko gaitasuna, gorabehera fisikorik edo teknikorik gertatuz gero.	<b>Ez</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bai</b> <input type="checkbox"/>
Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzako en eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta balioesteko aldizkako prozesuak ezartzea.	<b>Ez</b> <input type="checkbox"/>	<b>Bai</b> <input type="checkbox"/>
<b>Deskribapen orokorra</b>		

**KONFIDENTZIALTASUNARI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNARI  
ETA DATUAK BABESTEKO ARAUAK BETETZEARI BURUZKO KONTRATUA**

**II. ERANSKINA  
SEGURTASUN-URRAKETAK JAKINARAZTEKO EREDUA**

Jakinarazpenaren data: ___/___/___	Jakinarazpen-zenbakia: _____
Segurtasun-urraketaren data eta ordua:	
Segurtasun-urraketa motaren deskribapena:	
Urraketaren deskribapen zehatza:	
Eragindakoen kopurua, gutxi gorabehera	
Eragindako datuen kategoriak	
Eragindako erregistroen kopurua, gutxi gorabehera	
Datuak babesteko ordezkariaren datuak:	
Gorabeheraren berri nori eman zaion:	
Izan ditzakeen ondorioak: (Zuzentzen ez bada edo, agian, baita zuzenduta ere)	
Kaltea konpontzeko hartutako neurriak:	
Jakinarazpena egin du(t)en pertsona(k):	
Sin.: _____	